

PEDRO DE YRIZAR

Baiona, 2003ko otsailaren 13a

Koldo Artola

Egun on, jaun-andereok.

Egun, Conseil Général des Pyrénées Atlantiques Erakundearen Baionako egoitza honetan eta Euskaltzaindiaren eskutik, Pedro de Yrizar jaunak euskal aditzaren morfologiari buruz idatzi dituen lan batzuk aurkeztera gatoz. Lanok honako izenburuak dituzten liburuetan bildurik daude:

- *Morfología del verbo auxiliar labortano*, 1997an karrikaratua.
- *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*, 1999an plaza-ratua.
- *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental*, 1999-2002ko epe-an argitara emana (hau hiru zatitan), eta
- *Morfología del verbo auxiliar suletino*, iragan 2002 urteko abenduan agertu berria.

D. Pedro, adinak dakarkion nekea dela-eta, Madrileko bere etxean hona ezin etorrikerik geratu bada ere, izpiritualki, gure artean beti bezain presente sentitzen dugu. Hala ere bere familiartekoen presentzia nabaria da hemen, ezin baitzitekeen bestela, hauen artean, gertueneko senide gisa, Pedro Ramón semea dugula.

Ricardo Badiola Institutio honetako partaide eta argitalpenetarako arduradunak iradoki dit, Yrizarren laguntzaile hurbil gisa, zuei lan garrantzitsu honetaz hitz batzuk esatea, adierazpen batzuk ematea, alegia. Gomita, bistan denez, gogotik onartu dut, are gehiago hain hurbil sentitzen, maitatzen eta miresten den lagun baten ekarpenaz mintzatzeko izan denean.

Liburu hauetan biltzen diren lanak duela zenbait urte, 1991az geroztik hain zuzen, Hegoaldean argitaratu diren beste batzuen segida dira eta baita, ondorioz, lan osoaren bukaera ere. Izan ere, aipatu urte hartan gipuzkerari buruzko *Morfología* inprimatu zenetik agertuz ere joan diren bizkaierari, Iparraldeko zein Hegoaldeko goi-nafarrerari eta erronkarierari buruzko lanei gehituz joanik, Iparraldeko aditzak biltzeko emeki-emeki burutuz joan baitira.

Lan honetan zertzen den ekarpenak badu, dena den, bere hasiera aspaldiko urteetan; erran nahi baita ez dela gauetik egunera, ustegabeen edo, sorturiko emaitza. Aski da ikustea liburu hauetako kontrazaletan agertzen den Yrizarren euskal lanekiko kurrikuluma haren nondik norainoko bide ezin aberatsagoaz ohartzeko. 1947 urteaz geroztik abiarazi zuen bere ibilbide oparoa egun 92 urte dituen Pedro gure lagunak, hainbat argitalpenetan bere artikululu mamitsuak eskainiz, harik eta, 1981ean, oraingo lan honen aintzindari izango zen *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca* izenburuko lana (2 liburuki) argitaratu zuen arte. Lan honek ireki zion bidea, ezbairik gabe, oraingo beste honi, hura sakondu, aberastu eta, hitz batez, osatzeko baliotza izan duena.

* * *

Eta orain, eskuartean dugun *Morfología...* izenburuko lanetara itzuliz, zilegi bekiki Yrizarrek eratu duen lanaren azpiegituraz bi hitz esatea.

Euskalki bakoitzari eskaini liburuetan ‘Aurkezpen’ bat agertzen da lehenik, ‘Zer non’ batez jarraikia. Ondoren ‘Hitzaurrea’ dator eta, jarraian, ‘Iturriak’, non, aise antzeman daitekeenez, era askotako informazioak baliatu diren, batzuk eta besteak hainbat liburutatik zein informatzailerengandik bilduak. Hauen guztien ondoren aditzak biltzen dituzten ‘Koadroak’ agertzen dira -hauetan biltzen da, jakina, informaziorik handiena-, hondarrean koadrootan bildu informazioari buruzko ‘Oharpenak’ azaltzen direla, hauek, askotan, iruzkinez gehituak.

Iparaldeko euskalki, azpieuskalki eta bariatateak biltzen dituzten liburu hauetako datuen eraketa eta aurkezpena, gainera, Bonaparte Printzearen 4. sailkapena oinarritzat harturik egin duela dio, ‘Aurkezpen’ horietan, Yrizarrek espreski.

Lana, oro har, hamalau liburutan eman da argitara, azkeneko seiak izaki egun aurkezten direnak.

1997an jalgi zen hauetarik lehena, lapurtera biltzeko berariaz prestatua. Euskalki honen hedadura Bonaparte Printzeak bere karta miresgarrian erakusten duen sailkapenari egokitzen zaio guztiz, lan honetan ere Bidarte, Basusarri, Ainhoa, Urdazubi-Zugarramurdi, Biriatsu eta Hendaia herriek beren baitan biltzen duten lurraldeek zehazten baitute eremu hori. Hala ere, Baztan ibarreko euskara –Oronotz herrikoa izan ezik– gehitu izan zaio lapurterari, Bonaparteren azken momentuko iritziari jarraiki, antza.

Mendebaldeko behe-nafarrera biltzen duen liburukia, berriz, 1999an plazaratu zen. Honetan agertzen dira, Lapurdiko lurraldeetan egoki, Bonaparteren eta honen jarraitzaile Yrizarren arabera, mintzamoldez nafartar den hainbat herri, hala nola Uztaritze eta Lekorneko bariatateei dagokienez, Lekuine salbu. Eta jada Nafarroa Beherean gaudela, Baigorriko Kantonamenduari lo-

Pedro de Yrizar

MORFOLOGÍA DEL VERBO AUXILIAR SULETINO

(Estudio dialectológico)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



RÉGION



AQUITAINE



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

turiko herriak, Irulegi, Anhauze, Lasa eta Azkarate izan ezik, hauek, Luzai-derekin eta Arnegirekin batera, euskalki honetatik atera eta ekialdeko behe-nafarreraren esparrura eraman izan direnez. Aezkoako euskara, alabaina, Ahuñamendiz beste aldera, euskalki honen baitan sailkatu agertzen zaigu orain ere, Bonapartek egin bezala.

* * *

Hurrengo 1999-2002 urteetan, berriz, ekialdeko behe-nafarrerari buruzko lana argitara eman zen, hiru liburukitan banaturik. Izan ere euskalki honek, aski hedaturik egotean, Baiona ondoko hiriburutik hasi eta, behin Bardozera iritsi ondoren, iparraldetik hegoalderanzko norabidea hartuz, Arbela, Amikuzze, Oztibarre, Landibarre eta Garazi ibarretako mintzairak biltzen ditu, honi guztiari Zuberoako iparraldeko lauzpabost herri gehitu zaizkiola eta baita, orobat, Ahuñamendiz beste aldeko Zaraitzuko ibarra ere, beti ere Bonapartek eginitako sailkapenaren arabera, hau baita Yrizarrek -salbuespen ttikiren bat gora-behera- zintzo-zintzo jarraitu duena.

* * *

Azkenik, arestian karrikaratu den zubererarekiko liburua begibista aurrean dugula, Bonapartek egin sailkapena hemen agertzen dena bera da, Zuberoako ipar-mendebaldeko Etxarri eta Arüe herrietako mintzairak zubereratik atera eta ekialdeko behe-nafarreraren baitan kokatuak izan diren diferentzia xumearekin. Duela urte batzuk halere, 1992an hain zuzen, iragan mendearen hondarrean guztiz itzali den erronkarierari buruzko liburu bat plazaratu zen, zubereratik erauzitako euskalki autonomo gisa, halako maila edo kategoria baitzuen erronkarierak R. M. Azkueren eta hainbaten ustez, bai-eta P. Yrizarren beraren iritzian ere.

* * *

Eta honen guztiaren ondotik, lan osoaren laburpen gisa edo, 'Index' izeneko liburu mardul bat argitara eman nahi du P. Yrizarrek, obra guztiaren behin betiko bukaera izango dena. Azken argitalpenen honetarako ere Kontseilu Orokor honen aldetiko laguntza ekonomikoa oso garrantzitsua eta are eskertzekoa izango litzateke.

* * *

Eskerrak eman behar dizkiegu, bestalde, inkestatuak izan diren eraman handiko erantzuleei, bai-eta inkestak pazientzia handiz bururatzera ino eraman dituzten lagun prestu eta adoretsei ere. Haien izenak, ttipi eta handiak, eta gainerako ezaugarriak liburuotako 'Iturriak' sailean ikus ditzake irakurleak.

* * *

Aurkezpen hau, baina, ez nuke inola ere amaitutzat eman nahi, ezin nezake gainera, hemen, aitzinean, dugun kriatura honen aita den Yrizar jaunari buruzko aipamen xume bat egin gabe. D. Pedroz hitz egiterakoan, alabaina, batek ez daki nondik hasi. Oso kultura zabaleko pertsona izan arren zinez apal eta gozo, hurbil eta jatorra da zentzurik zabalenean. Inori leziarik eman gabe beti entzuteko prest eta esaten zaiona gogotik hartzen dakiena, esalearen edo momentuko informatzailearen balizko maila apala gutxietsi gabe, alderantziz baizik. Haren laguntzaile eta adiskide izateko zorion eta ohorea dugunontzat benetan eredugarria.

* * *

Eta jada, bukatzeko, hemen bildu garenon sentimendua biltzen dudan us-tez, eskerrik beroenak eman nahi dizkiot D. Pedrori –eman nahi dizkiogu, beraz–, euskalgintzari oro har, aditzaren morfologiaren alorrean bereziki, egin dion ekarpen ikaragarriagatik, eginahal horretan guri guztioi erakutsitako adore eta kemen neurri gabekoagatik eta harreman pertsonalean ere erakutsi hurbiltasun eta gozotasun ezin handiagoagatik. Gure artean oraindik ere ahalik denbora luzeen izan dezagun desira helarazten diogu bihotz-bihotzez, senitar-tekoen eta gu guztion maitasuna lagun duela.